

Erkotalde, Ermuko kontsumo taldea

2010ean sortutako talde honek elikagai natural eta ekologikoak ditu ardatz. Astean 10 euro ordaindu eta gero, garaian garaiko barazki eta fruituekin osatutako oterra jasotzen dute martitzenero euren kideek.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

Iaz sortu zen eta laster lehen urtebetetzea ospatuko dugu.

- Zenbat kide zarete?

Gaur egun 20 lagun pasatxok osatzen dugu taldea.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Azkenaldian, gure elikadura ere industria-korporazio eta zientzi-korporazio handien mende dagoela ikusi genuen eta horren kontra egin nahi genuen batzuek. Beste batzuek, lurra modu ekologikoan eta gizatiarrean lantzen dituztenei eta natura eta bere zikoak errespetatzen dituztenei babesa emateko gogoia genuen. Gainontzekoek produktu naturalak eta osainsuak jan nahi ditugulako gaude honetan. Gure helburua, beraz, kontsumitzaile eta ekoizlearen arteko harreman zuzena lortzea da, bioi bidezkoak iruditzen zaizkigun salneurriak finkatuz.



- Nola egiten duzue lan?

Guk aukeratutako baserri batek garaian garaiko barazki eta fruituekin, ogi txiki bana eta arrautzez osatutako oterrak bidaltzen dizkigu martitzenero. Taldeko kideok 10€ ordaindu behar ditugu astero oter hauek jasotzeko eta Eskilarapekon izaten ditugu eskuragarri.

- Zein maiztasunekin biltzen zarete eta non?

Hileko lehen martitzenean Eskilarapekon biltzen gara. Bertan, kideen inpresioak jaso zein hobetu beharreko gauzak lantzen ditugu, besteak beste.

- Urtean zeintzuk ekitaldi egiten dituzue?

Hainbat hiltzaldi antolatu ditugu eta baita sukaldaritzako ikastaroak. Ikasta-

rootan produktu naturalak era ezberdinetara prestatzen ikasi daiteke.

- Txangoak egiten dituzue?

Ez, baina produktu ekologikoak ematen dizkigun baserria bisitatzea joan ginen behin. Bisitaldi honi esker, baserrikoen lan egiteko duten modua ikusteko aukera izan genuen.

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Hilero egiten ditugun bileratara hurbiltzea izango litzateke aproposena. Hala ere, 646 098 481 telefono zenbakian ere informazioa eskatu daiteke. Edornork parte har dezake eta taldea asko handitzen bada, beste baserri batekin egin beharko dugu hitzarmena baita ere.

Dorleta Vidal

san antonio OKINDEGIA GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

ZABAL

ERMUA

GARAGARDOTEGIA CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta INPORTAZIOZKO GARAGARDOtan berezitasuna

943 17 39 78